

Zortzi bikote lehiatuko dira trikiti finalean, bihar, Tolosan

Leidor antzokiak aterbetuko du sariketa 21:00etatik aurrera

Erredakzioa / Donostia

Gaur astebete Azkoitian egin zen kanporaketan sailkatu ziren zortzi bikoteek bihar izango dute txapela jatzeko aukera.

Trikitia, porrusalda, fandangoa eta arin-arin pieza bana jo beharko du bikote bakoitzak. Epaimahaiak erabakia jakinarazi aurretik iazko irabazleek joko dute, Edurne Iturbe eta Andoni Elortzak.



EDURNE KOCH

Zortzi trikitilari bikote ariko dira nor baino nor bihar Tolosan.

AITOR LETAMENDIA eta Arkaitz Lasa, Edurne Iturbe eta Ohiana Irastorza, Patxi Aiorga eta Joseba Zabalo, Jon Ostolaza eta Rakel Pujaña, Oier eta Arkaitz Balzola, Josu Arrizabalaga Izer eta Mikel Gorrotxategi Alabier, Xabier Aramburu eta Aitor Alkorta, eta Alaitz Roteta eta Olatz Zubimendi. Horiexek dira bihar Tolosako Leidor antzokiaren sari nagusiaren bila lehiatuko diren trikitilari bikoteak.

Aurretik, joan den ostiralean hain zuzen, Azkoitiko Baztartzo antzokian eginiko kanporaketan jo behar izan zuten zortzi bikote horiek, eta

orduan egindako lanari esker lortu dute finalean lehiatu ahal izatea.

Trikitia, porrusalda, fandangoa eta arin-arina jo beharko ditu bikote bakoitzak, aurreko kanporaketan egin bezala.

Epaimahaiak horien lana baloratzeko hainbat irizpide markatu ditu: bikotekideen elkar ulertze egokia, digitazioa, kantatzeko era eta interpretatutako piezen zailtasuna.

Imanol Urkizu pandero jole eta kantaria, Iñaki Aierbe soinu jolea, Garikoitz Mendizabal txistu irakaslea eta Joxe Juan Ugalde dantzaria ariko dira epaile lanetan. Idazkari

lanak Joxe Alkainek egingo ditu.

Bikote irabazleak 300.000 pezeta eskuratuko ditu (12.000 libera hor nonbait) eta baita garaikurra ere. Bigarren sailkatuarentzat 200.000 pezetako saria egongo da, eta hirugarren bikotearentzat 150.000 pezetakoa. Laugarrenak 100.000 pezeta jasoko ditu. Finalera iritsitako gainontzeko bikoteetako bakoitzak 50.000 pezeta izango du saritzat.

Finalistek euren lana bukatu eta epaimahaiari erabakia har dezan denbora uzteko, iazko irabazle Edurne Iturbe eta Andoni Elortza bikoteak joko du.

Trikiti Saria 99 lehiaketa Euskal Irrati Telebistak antolatuko du azken urteetan, nahiz aurretik pieza berriak izan lehiaketaren oinarri.

82 abesbatza eta 3.000 kantari daude Iparraldean

EKEK eskatuta ikerketa egin du Siadeco etxeak

Iñaki Etxeleku / Baiona

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAK eskaturik, SIADeco Ikerketa Elkarreko koru kantua eta euskal kantua Ipar Euskal Herrian aztertzen duen inkestaren lehen datuak plazaratu dituzte. Kantuketan proiektuan sartzen den azterketaren lehen emaitzek erakusten dutenez, «abesbatzeta-ko kantuak iparraldean duen presentzia eta garrantzia azpimarratzekoa da».

82 abesbatza inguru zenbatzen dira eta 3.000 abeslari bertan parte hartzen dute. Beste ezugarrietan agertzen dena da «abesbatzetarik %56ak laikoak direla eta gaineratekoak erlijiosoak».

Abesbatza zuzendari dagokienez, «%80ak musika formakuntza bat badu baina 575 ez du gaur egun gisa bereko formakuntzarik jarraitzen». Zuzendarien artean, %27ak uste du «euskal kantua gehienik bereizten duen ezaugarria hizkuntza dela, %21ak aintz ezaugarri badirela bereizten duena eta %13arentzat, ahotsaren

soinuak du bereizten. Bestalde abesbatzen erreperorioetan, euskararen presentzia %70ekoa da, frantsesarena %19koa eta latinarena %6ekoa.

Hegoaldean apenas kantatzen duten

Ohargarria dena ere kontzertuen lekua da, gehienak Ipar Euskal Herrian egiten baitira, gero gutiago Euskal Herrikan kanpo eta are gutiago Hego Euskal Herrian. Soziodemografikoki, kantarien 10etarik 6 emazteak dira eta 4 gizonak. %49ak, 46 eta 65 urte artean du, %20ak 65 urte baino gehiago, %22ak 21 eta 45 urte artean eta 20 urtez petik dutenak %3 dira. Hizkuntzaren gaitasunaren aldetik, kantarien %20ak dio euskara oso ongi dakiela, %14ak nahiko ongi. Inkesta egileek azpimarratzen dute kantariaren gehiengo jende heldua dela eta horien artean euskararen ezagutza altuagoa dela. Koru kantua euskal kantua adierazteko ahal hoberena ote da? galderari %67 baietz ihardetsi du, %15,7ak ezetz.

Getxoko jazz lehiaketarako deialdia zabalik dago

Europako ezin musika taldek har lezake parte

Erredakzioa / Bilbo

DATORREN otsailaren 26a arteko epea dute jazz taldek Getxoko Jazz Europa Jaialdian egingo den lehiaketan parte hartzeko izena emateko. Ohi denez lehiaketa uztailean egingo da, baina ez dute izena emandako guztiek parte hartuko, epaimahaiaren iritziz onenak diren sei taldeek baizik.

Irabazleak 500.000 pezeta (20.000 libera inguru),

diskoa grabatzeko aukera eta garaikurra jasoko ditu. Bigarren lekuan geratzen denak 200.000 pezeta jasoko ditu, eta hirugarrenak 100.000.

Antolatzaileek erabakitako baldintzetan agertzen da lehiaketan parte hartu ahal izateko musikariaren adinak ezin izango duela 30 urtetik gorakoa izan.

Getxoko jazzaldia hurrengo urteko uztailaren 5, 6 eta 7an egingo da.

IRAGARKI MERKEAK 9 4 3 3 0 0 2 2 2

66 x 33 mm
2 MODULO
(Edizio orokorra)
Eguna: **5.800**
Astea (6 egun): **4.400**
2 aste (12 egun): **4.000**
Hilabetea (24 egun): **2.800**

31 x 33 mm
31 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)
Eguna: **2.900**
Astea (6 egun): **2.200**
2 aste (12 egun): **2.000**
Hilabetea: (24 egun): **1.400**

31 x 33 mm
31 x 33
MODULO
(Araba-Nafarroa)
Eguna: **2.100**
Astea (6 egun): **1.800**
2 aste (12 egun): **1.500**
Hilabetea: (24 egun): **1.100**

MITXELENA
ERLOJUDENDA
Berritze lanak direla eta, Deskontu bereziak %25 arte.
MAMUT GALERIAK
© 943 49 31 84
OIARTZUN